

a u z o z a u z o a u z o z a u z o

Altza

Arriya parkeko mahai bitxia

.....

Artelekuko tailer batean hainbat artistek Altza hartu dute eszenatoki

Altza aukeratu dute beraien artearen eszenatoki Artelekuk uztailearen 4tik-29ra bitartean antolatutako «Hiriaren Esku Hartzeak» tailerrean parte hartu duten ikasle batzuk.

Horietako bat dugu Gilles Paté, 28 urteko frantsesa. Pariseko Arte Ederretako Eskola Nazional Goreneko Diplomatuia da. Lyonen 1993. urtean egindako Arte Garaikidearen Bienalean erakusketa-
ren muntaia egin zuen eta urte berean Helsinkin egin zen Vapauden Aukio gale-
rian parte hartu zuen.

Mahai optikoa

Gilles Paték Altzako Arriya parkean egin eta fin-
katu du bere lana, «pic-
nic»ak egiteko mahai
publiko baten erdian gailu
optiko bat finkatuz. Tele-
bista baten pantailaren
tamaina duen kristal batek
hiri eta paisaia menditsu



Gillesek momentuz Arriya parkean mahai bakarra jarri badu ere, bere proiektuak beste hiru mahai proposatzen zituen, bere esanetan «gauzak banaka baldin badaude kaltetuak izateko arrisku handiagoa daukate eta hori soziologi-
gikoki egiaztatuta dago.»

bat ikusteko aukera ematen digu. Kristalaren goialdean eta erdialdean kokatu ezkerre Mendiolako berdeguneak Altzako eraikuntzekin kontrasta ditzakegu, beti ere eguraldiak horrelakorik uzten duen kasuetan.

Gillesek hiri baten barruan sor daitezkeen kontraesanak azpimarratu

nahi izan ditu lanarekin. Gailu optikoak hiri garapenak eraman duen martxa ikusteko aukera eskaintzen digu. Proiektua kamara geldian eta zuzenean telebistaz emititutako irudia ikustea bezala da, ez irudi pseudohistoriko bezala bai-
zik eta garapenaren kaosa bezala.

Artelekuren tailerra

Artelekuk antolatutako tailer honen helburua hiri bi eremutan banatzea da. Alde batetik, giza ihardueraren eremuan.

Hiri espazioak zein audientzia-ikusle duen ikustea eta bigarrenik hiri espazioa «media» gisa aztertzea. Honen inguruan eskuhartzea eta hiri espazioan egingo lituzketen proiektuak aurkeztu behar izan dituzte ikasleek. «Hiriaren eskuhartzeak» tailerra Antoni Muntadasek proposatutako lana da, bertan Alicia Chillidak koordinatzaile lanak egin dituelarik. Artista eta arkitektoei zuzendutako hiri, espazio eta inguruneari buruzko gogoeta eta proposamen gisa sortutako tailerra da.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.:391267)

Jose Luis Jauregi
Harategia-Urdaitegia

Txirrita Bertsolaria, 66 ALTZA
Tfnoa.: 39 18 99

HIPER LARRATXO

Opariak - Barruko Arropa - Tresneriak
Jostailuak - Bisuteria

Bertsolari Txirrita 10 ☎ 40 05 95 DONOSTIA

TXIRRITA-ZOO

Txori denda

Txirrita bertsolaria 16, ☎ 39 24 68

Gure auzoan bertan badugu aukera



Gozo eta bonboi
denda

Bertan eginak
Etxez-etxekeo banaketa
Txirrita bertsolaria, 3 • Tfnoa.: 391605
ALTZA

Ikusketa
FOTO

Ordubeteko
epean

Larratxo pasealekua, 26 ☎ 40 06 97
DONOSTIA



CALZADOS
ZABALO


Larratxo 16, ☎ 39 14 15 DONOSTIA

Oinetakoak - Poltsak eta osagaiak

intxarrondo

Aparkaleku bila

auzoa handituz joan den heinean, ohizkoa den arazoa sortu da: aparkaleku falta. Hego Intxarrondon egin diren babes ofizialeko garaje asko ez dira salgai jarri. Horrela, garaje ugari jarraitzen dute itxita, kalean kotxeek bigarren ilaran aparkatu behar duten bitartean. Gainera, hauei isun gogorak ezartzen zaizkie. Oraintxe, 180 garaje aterako dira saltzera, baina kopuru hau ez da nahikoa beharrak asetzeko. Honen aurrean, Ipar-Haizea elkarteak zera proposatzen du: Baso-Txiki eta Zarategi pasealekuetan kotxeak baterian aparkatu ahal izatea, garajeak salgai jarri arte bederen. Zulo-Zahar Hirigintza batzordeak ere arazo larri hau maila batean konpon dezakeen proposamena aurkeztu du: Zabal-Toki pasabide eta frontoi estaliaren artean trenbidea estaltzea, honela, estalkipean 300 bat garaje toki jar daitezke. Garaje hauek, salgai edo alokairuan jarriko lirarteke.



Ohizko aparkatzeko modua beharrezko baterian aparkatzea proposatzen du Ipar-Haizea elkarteak leku gehiago egon dadin Basotxiki eta Zarategi pasealekuetan.

egia

Mus Txapelketa izango da Bukowskin ostiralean. Bertan, edozeinek parte har dezake eta izena emateko bertatik pasa eta mila pezeta ordaindu baino ez da egin behar. Sariak gainera, bikainak dira: arkumea, kuadroak, baserriko oilaskoa... Giro aparta izango da beraz, taberna gazte honetan arratsaldeko laueta hasita.

Bestalde, larunbaterako, udako kontzertuekin jarraituz, Ezin Uka taldea entzuteko aukera izango da, ohi den bezala, arratsaldeko zortzietan.

Porrontxoetako iai batzordeak antolatuko

duen txartel txapelketarako epea hilaren hamarrera arte luzatu da. Bide batez, irabazleak 25.000 pezeta saria irabaz dezakeela gogoratu nahi izan dute. Beraz, auzoko artista guztiak parte hartzera gonbidatzen dituzte.

Gure Txokoa tabernak ez ditu bere atea abuztuan itxiko. Oraingoz behintzat, ez dute batere argi noiz itxiko duten. Taberna honek ia atea ireki zituenetik arazoak izan ditu goiko bizilagunekin zaratara dela medio.

Udalaren bitartez, neurketak egin ondoren, egunero gaueko hamarrak aldera ixtera behartuta daude eta

musikaririk ipini gabe noski. Hala ere, gauzak honela dauden bitartean, Maite, jabeak esan digun bezala, lanari eusteko asmoa daukate.

Betelu faberna inguruan, sortu da eztabaidarik. Baztan aldeko taberna honek kanpoan duen terrazak ez omen du baimenik, Udalak adierazi dionez, baina bertan dirau. Bestalde, bizilagunen artean, zenbait kexa jasan dituzte, auzotarrena den plaza eta egoteko leku hau, beraiantzat guztiz hartu dutelako.

HAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 28 57 49)

AINHOA PERMACH (TFNOA.: 46 26 47)

TABERNA

Bukowski

Egia, DONOSTIA

ILARGI-ZARRA

Taberna

San Kristobal z/g
Tfnoa.: 27 72 08 EGIA